


# BERRIGARA

1. zenbakia JARDUN Elkarte, Bergara 1995, maiatzak 12



*Bailarako dantzariak  
domekan Bergaran*

## Dantzari Eguna



**Bergararen onerako.**

**Eman Botoa**  **EAJ  
PNV**  
Esperientzia eta Etorkizuna



# BERGARAKO OSASUN Gida

## ALBAITARIAK:

- ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak). ..... ☎ 76 43 29
- ETXEBERRIA Julio (Deba Garaiko albitari ofiziala). Telefono mobila. .... ☎ 908 77 17 32
- IRASTORZA BENGEOA Sabin (Granjako animaliak) - Iribar baserria ANTZUOLA. .... ☎ 76 63 46
- NOGUEIRA Humberto (BALDANA klinika). 908 87 68 47 (Mobila) - Koldo Eleizalde, 28. .... ☎ 76 27 97
- SUINAGA Esther (Etxeko animaliak. Etxez -etxeko zerbitzua). .... ☎ 76 17 84

## ANALISI KLINIKOAK:

- LABORRA Isabel - Oxirondo 4, 1.B. .... ☎ 76 32 06

## BARNE MEDIKUNTZA:

- IRIGOYEN Victor - Oxirondo 4, 1.B. .... ☎ 76 32 06

## DENTISTAK:

- ASTIAZARAN SOLOZABAL - Iparragirre, 1 behea. .... ☎ 76 27 95
- BERGARA HAGIN KLINIKA - Bidekurutzeta 6, 2. .... ☎ 76 05 77
- GOROSABEL J. Alberto - Fraiskozuri, 5 behea. .... ☎ 76 56 88
- IRIARTE Idoia - Artekale 1, 1.C. .... ☎ 76 01 65
- SUDUPE Felipe - Matxiategi, 18 behea ezk. .... ☎ 76 07 66
- GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E.M. - S. Arrieta 3, 2.B. . ☎ 76 38 54

## FISIOTERAPEUTAK:

- ARZAK Miren (Reeducacion Postural Global) - Masterreka, 7 4.C. .... ☎ 76 43 71

## GINEKOLOGOA:

- SERRANO Doktorea - Ramon María Lili. .... ☎ 76 59 39 - 72

## MASAILARIAK:

- AZPEITIA Irune - Telesforo Aranzadi 1, 2. .... ☎ 76 14 08
- CASANELLAS Jabier - Boni Laskurain 5, 2.E. .... ☎ 76 03 78
- GIARTZU - Boni Laskurain, 3 behea. .... ☎ 76 35 71
- MARTINEZ Luis Jabier - Masterreka 7, 3.A. .... ☎ 76 51 18

## MEDIKUNTZA OROKORRA:

- ARCINIEGA Julio - Boni Laskurain 3, 1.B. .... ☎ 76 37 50

## LARRUAZALAREN GAIXOTASUNAK:

- ARISTONDO F.J. (Gaitz benereoak) - Barrenkale, 16 1 ..... ☎ 76 18 81

## PEDAGOGOIA:

- IZETA Maribi (Gabinete psikopedagogikoa: logopedia, psikomotrizitatea) - S. Arrieta 3, 2.E. .... ☎ 76 26 42

## PODOLOGOAK:

- ALTUBE Eurne - Simon Arrieta, 2. .... ☎ 76 07 84
- AZPIAZU Arantzazu - Herri Lagunak, z/g. .... ☎ 76 41 32

## PSIKIATRA:

- GALLASTEGI Pablo - San Martin Plaza 2, 1.ezk. .... ☎ 76 26 64

## PSIKOLOGOAK:

- FERNANDEZ Jose Ramon (Psikologo klinikoa) - Ramon María Lili, 2. .... ☎ 76 59 72
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (Logopedia-foniatría, psikologia, psikomotrizitatea). .... ☎ 76 14 80
- URKAREGI Pakita (Psikologo klinikoa). .... ☎ 76 53 13
- ZUBILLAGA, ZABALA Marisa (Psikologo klinikoa). .... ☎ 76 30 76

ERROTALDE JAUREGIA  
20570 Bergara  
Tfnoa eta Faxa: 76 03 97

**Argitaratzailea:**

JARDUN Elkartea.  
Masterreka, 13 Bergara.  
Tfnoa eta Faxa: 76 08 19

**Zuzendaria:**

Eneko Azkarate

**Erredakzioa:**

Eduardo Mendibil  
Mikel Elkorobereziabar  
Jone Larrañaga

**Maketazioa:**

Eneko Azkarate  
Eduardo Mendibil

**Publizitatea:**

Alex Azkarate

**Harpidetzak:**

Gorka Elorza

**Testuen zuzenketak:**

Estepan Plazaola  
Maripi Laskurain  
Alex Labaien

**Erredakzio kontseilua:**

Gorka Elorza  
Miguel Angel Elkorobereziabar  
Alex Labaien  
Iñaki Eraña

**Komikiak:**

Bittor Rodriguez  
Gorka Ortega & Jon Alvarez  
Jose Martin Ezenarro  
Julian Ezenarro  
Alex Ugalde  
Unai Azkarate

**Banaketa:**

Txantxangorri taldea

**Tirada:**

3.900 ale.

**Inprimategia:**

Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

**Copyright:**

BERRIGARA

**Lege gordailua:**

SS 50/91

**ISSN:**

1130-6599

**BERRIGARAK** ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du

**Z E B E R R I D A ?**

## PABLO IRIZAR

### Euskadi Racingeko kotxe gidaria

- Zelan sortu da Euskadi Racing taldea?

- Aurkezpena aste honetan egin badugu ere, iaz sortu genuen nolabait hemengo pilotoak elkartu eta ekipoaren irudi on bat emateko asmoz. Gainera sariak irabazteko orduan bada aldea lehengoarekin konparatuz: lehen %25 kentzen ziguten eta orain, elkarte osatzean, sariak osorik gei BEZa kobratzen ditugu. BEZa elkartera bideratuko dugu ekipamendua eta bestelako gastuak ordaintzeko. Bestalde, patrozinadore haundi bat lortu nahi dugu 17 kotxeetan publizitatea eramateko.

- Kirol mailan abantailarik izango du kotxe gidarientzat?

- Ez gehiegi, azken ba-



tean bakoitzak bere ekipoa baitauka baina karre-  
ra egunetan elkarrekin ibiltzen gara, lagunartean. Bi txapelketatan arituko gara nagusiki. Bergarakoei dagokienez, Juan Antonio eta Martin Egaña anaiak AX Kopan, Iban Rodríguez Espainiako Rally Txapelketan eta ni neu berriz ZX Superkopan.

**"Hemengo pilotoak elkartu eta taldearen irudi on bat emateko bildu gara"**

**I T U R R I O N E T I K**

### Javi Pérezek Bergaran jarraituko du datorren urtean ere

Javi Pérez preferente futbol taldeko entrenatzaile eibartarrak Bergaran jarraituko du hurrengo denboraldian. Badirudi Bergara Kirol Elkarteko Zuzendaritza eta entrenatzailea ados direla hurrengo urtean elkarrekin jarraitzeko. Iñigo Zaitegi B.K.E.ko presidentek azaldu digunez, elkarteak berregokitze ekonomikoari ekingo dio hurrengo denboraldian eta beraz, jokalaririk guztiek primak besterik ez dituzte kobratuko. "Kanpotik jokalariai ekartzen baditugu ere ez dute fitxaririk kobratuko". Javi Pérezek iaz hartu zuen Bergarako futbol talde nagusia entrenatzeko ardura eta datorren urtea hirugarrena izango da.

**E S A N  
D U T E**

"Ez da erreza gorren artean komunikazioa lortzea eta komunikazioa sakontzea zailagoa da oraindik. sakontasunera heltzeko asko landu behar da eta horretarako laguntza eta baliabide ugari behar dira. Ez da erraza sinistea norainoko oztopoak dituzten gorrek, azken batean ikusten ez den akats bat delako. zailtasunak? Hitza ez menderatzea, hau da, aho komunikazioa. Baina gero, ulermenean, gure irakurketa moduak ez dituzte menderatzen. Gaztetxoak direnean ez da hainbeste nabaritzen komunikazio bisuala erabiltzen dutelako batipat, baina adinean gora doazen neurrian komunikazio arazoa areagotzen doa eta gero eta larriagoa da arazoa".

**IÑAKI  
MADINABEITIA**  
Gorren irakaslea  
**EUSKADI IRRATIA**



### DOS TONTOS MUY TONTOS

Ostirala: 22.30.

Larunbata: 17.00, 19.30, 22.30.

Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.

Astelehena: 19.30 (Ikuslearen eguna).



### VUELVE COLMILLO BLANCO

Igandea: 11.30.



### EL HOMBRE QUE MIRA

Osteguna: 20.00.

## Zinea

▼▼ **Jim Carrey** (*La máscara*) eta **Jeff Daniels** (*Algo salvaje*) aktoreek protagonizatutako komedia astebukaera osoan ikusgai. **Peter Farrelly**k zuzenduta, biek ere hankasartzetan adituak direla frogatuko dute. **Lloyd (Carrey)** taxista bat da eta neska bati bere taxian maletin bat ahaztuko zaio... Bere pisuko lagunaren laguntzaz (**Daniels**) maletina bueltatzeko ahaleginak egingo dituzte.

▼▼ Bigarren aldiz iragarrita, **Walt Disney**ren produkzio honetan *Colmillo blanco* txakurraren gorabeherak kontatzen zaizkigu. Alaskatik alde egitean, *Colmillo blanco* *Haida* indio tribuarekin bat egingo du eta beraiekin batera aurkezten zaizkien mehatxu berriei aurre egin beharko dizkiete bizirik jarraitu ahal izateko...

▼▼ **Tinto Brass** zuzendariak erotismoa jorratu izan du bere filme gehienetan. Oraingoan **Alberto Moravia** idazlearen nobela batean oinarritu da *voyeurismo*aren inguruko hausnarketak planteatzeko. **Moraviak** esaten duenez, *voyeurak* bizitzaren sekretuan sartu nahi du... **Francesco Casale** eta **Katarina Vasilissarekin**.

## Deiak

▼ **1943**ko kintoen anaiarteko eguna maiatzaren 20an. Meza San Pedron eta afaria Antxonin. Izen ematea Azkarate estankotan.

▼ **60 urte** aurtan egiten dituzten anaiarteko eguna maiatzaren 21ean. Izen-ematea Lazpiur harategian, Poligonoko supermerkatuan eta Azkarate autozerbitzuan.

▼ **Antton Arrillaga**ren margoak Eibarko Arrate Kultur Elkartean igandera arte.

▼ **Odol ateraldia** asteazkenean 7etan Seminarioko baxuetan.

▼ **Jose Mari Galán**en argazki erakusketa Kultur Etxean.

▼ **Bingen De Pedro**ren ikasle-en margo lanak Nahikarin.

## Ogia

▼ **Igandea 14:** Mizpildi.

## GOARDIAKO FARMAZIAK

▼ **Ostirala 12:** Camacho.

▼ **Larunbata 13:** Puy.

▼ **Igandea 14:** Puy.

▼ **Astelehena 15:** Guallar.

▼ **Asteartea 16:** Estella/Irizar.

▼ **Asteazkena 17:** Mozos/Amezua.

▼ **Osteguna 18:** Camacho/Ruiz.

## TOKI-ONA

### Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak / Txitxizotzak  
Kazolatxoak / Txabierroak

Matxiategi, 1 Tfnoak: 76 39 53

## DENA

# 100etik

ZURE OPARIENTZAKO

Simon Arrieta, 3

## MUGICA

GOXOTEGIA



Artekale, 3  
☎ 76 10 34

- Pastelak
- Errellenoak
- Tostoiak
- Tartak

# Dantzari eguna domekan

## Bailarako zazpi dantza talde bilduko dira Bergaran

**Xamatz** dantza taldeak antolatuta, igandean, Bailarako Dantzari Nagusien Eguna ospatuko da gure herrian. Oñati, Eskoriatza, Arrasate, Antzuola, Soraluze, Arrasate eta Bergarako dantza taldeak gonbidaturik daude eta guztira 300 bat dantzari etorriko direla espero da.

Goizeko 11etan talde guztiak kalejiran irtengo dira Plazatik eta herriko puntu ezberdinetara abiatuko dira: antzuolarrak Espaloia eta Toki-Ederera, Oñati eta Soraluzeko taldeak Poligonoa eta Jubilatuetan arituko dira, Eskoriatzako taldea Mizpirualden, Plazan eta Simon Arrietan, Arrasateko bi taldeak Plazan, Simon Arrietan eta Frontoian eta azkenik, Xamatzekoek Frontoian eta Plazan eskeiniko dute dantzaldia.

Ondoren, ordubatean, talde guztiak, San Martin plazan bilduko dira eta honako dantza hauek izango dira ikusgai: Agurra, Arrostitz, El árbol eta La jota, Eskoriatza, Oñati eta Uztai dantza. Arrasaldeko 5 t'erdietan, berriz, honako dantzak eskeiniko dira Plazan: Ikurrin dantza, Antzuola,



Bailarako dantzariak Bergarako kaleak hartuko dituzte igandean.

Bedaio, Gorulari-Dominguillo, Lore Gazteak, Plazentzi eta Larrain dantza. Jarraian, 7etan, Maixa, Itziar eta Garbiñeren kontzertua eta, era berean, egun guztian zehar Jardun eta Moises Aspiazu taldeko trikitilariak eta Kobok dultzaineroak

giroa alaitzeaz arduratuko dira.

Dantzari Nagusien eguna urtero ospatzen den jaia da (aurreko urtean Antzuolan izan zen) eta bailarako dantza taldeek dituzten agertaldien eskasia zela eta hasi zen ospatzen 1992an.

Horrela, dantza taldeei irteera bat eman eta, bide batez, gure herriaren kultura eta folklorea ezagutzera eman nahi dira.

Xamatzeko arduraduren hitzetan, "orain arte antolatutako edizioetan arrakasta gutxi samar izan dugu eta dei bat luzatu nahi genieke bergarrei zein bailarako beste herrietako biztanle guztiei igandean parte hartzera etor daitezten".

### EGITARAUA


**11.00:** Kalejira. Talde guztiak San Martin plazatik irten eta herrian zehar dantzan egingo dute.

**13.00:** Dantzen erakusketa San Martin plazan.

**17.30:** Dantzen erakusketa San Martin plazan.

**19.00:** Maixa, Itziar eta Garbiñeren emanaldia San Martin plazan.

Egun guztian zehar, Jardun eta Moises Aspiazu taldeko trikitilariak eta Kobok dultzaineroak.



**GAZTELU**  
**BURDINAKI DENDA**

Mintegi, 1

Tfnoak: 76 32 48 / 76 34 50 BERGARA

Taberna Kafetegia  
**EHIZTARIAK**  
**LOS CAZADORES**  
Kafea da gure berezitasuna  
Zubieta, 26 BERGARA

**Bergara hilda dago**

Astebukaera da. Klaserik ez dauka. Jaieguna datoz eta esaminak egiteko egunetarako gero eta gutxiago gertatzen den arren, jai egunak aprobetxatzeko aukera badaukagu oraindik. Baina nola pasatu astebukaerak?

Eguraldiak laguntzen badu mendira, pantanora edo hondartzara joateko modua izan dezakegu, baina euria egiten badu... Gauean, berriz, zer egingo dugu? Betikoa. Kalera irten, betiko tabernetatik ibili eta astebukaera guztietan ikusten dugun jendearekin topo egin. Aspergarria benetan. Eta igandean? Igandean berandura arte lo egin eta arratsaldean pelikula txar bat ikustera zinera joan edo, bestela, Canal Pluseko partidua ikustera tabernaren batera joan. Astebukaera aspergarria benetan. Betiko leloa.

Ostiral edo zapatu gaua ondo pasatu nahi badugu hobe da beste herriren batera joatea. Baina kotxerik ezeean....

Ez dakigu nolakoak izango ziren orain dela urte batzutako zapatu gauak. Gu baino zaharragoei sarritan entzun izan diegu, lehen martxa gehiago zegoela. Ez da zaila. Inguruko herrietatik jende ugari etortzen zela eta oso hanbiente polita egoten zela. Txibisto zabalik zegoen eta herriko taberna eta kaleak gazte

jendez beteta egoten omen ziren. Noizean behin gaztetxean jaialdiren bat ere antolatzen zen.

Orain, berriz, kanpotik ez da inor etortzen eta bertakoek Oñati, Ermua, edo Elgoibar aldera "emigratzen" dute. Normala da. Zer dago ba Bergaran jendea erakartzeko? Oso gutxi. Jaialdiak antolatzeko tokirik ez dago, ezta diskotekarik ere...

Diskoteka bat zabaltzeko asmotan dabilta herriko batzuk eta irekitzen badute gauzak hobera egingo dutela uste dugu. Jaialdiak antolatzen badituzte eta musika talde interesgariak ekartzen badituzte, kanpoko jendea herrira etorriko da eta bertakoak izango dute nora joan, heritik irten barik. Beraz, animo, eta ea lehen bait lehen zabaltzen duten eta astero-astero gauza onak antolatzen dituzten.

Orain dela aste pare bat txotxongilo jaialdia izan zen Bergaran eta jendea ikustera joan zela entzun dugu. Guk ezin izan genuen joan mendian izan ginen eta. Horrelakoak sarriago antolatu beharko lituzkete herriari bizitasuna emateko.

Bestalde, teatorra jende gutxi joaten da, baina taldeak ekarriko balituzte, agian jendea antzerkia ikustera joaten animatuko litzateke. Beraz, animo eta antolatu gehiago.

Bitartean, asteburuan nola dibertitu pentsatzen hasi beharko dugu...

**M. ASPIAZU ETA LAGUN  
KUADRILA BAT**

**Zuzenketa**

Aurreko alean, 21. orrian "Beraiek diñoe" sailean "Olatotxea zan" izenburuaz argitaratu zen Asuntxi idarretak idatzitako artikulua. Erredakzioan izandako huts batek eraginda "Josu Oregi" izenburua jarri beharrean aipatutako "Olatotxea zan" izenburuarekin argitaratu zen. Barkamenak eskatu nahi dizkiogu Asuntxi Idarretari, artikulua idatzi zuenari, oker honengatik.


**BERRIGARA**

**R. B. 15.363.106  
AUZOKIDE TALDE BATEN  
IZENEAN**

**Tiira biraka**

**GORKA ORTEGA & JON ALVAREZ**

Gure herrian, jendea diru aurreratzea atsegin zaionez, paperontzi bat ipintzean gauza askotarako erabili ohi da: "Artelanan" erakusketa modura...



San Juan gaua ospatzeko toki gisa...



Esan dezakegu, edozertarako erabiltzen direla...



◆ **Jokoak**  
**Jubilatueta**

Gipuzkoako jubilatuen elkarten arteko txapelketerako sailkatze probak jokatzen jarraituko dira hurrengo astean. Astelehenean, 15.30etan, mus txapelketa eta asteartean, ordu berean, tutekoa.

◆ **Aritz Saidiren**  
**aldeko zozketa**

Aritz Saidi Olartuaren antzuolar gaztearen aldeko zozketako boletok salgai daude. Zozketaren irabazleak bi pertsonendako Palmara bidaiari bat eskuratuko du. Bestalde, jaietako txoznan lan egiteko interesatuek 76 63 16 telefonora deitu dezakete.

◆ **Bideoa**

Bihar 11etan, Jardunek antolatuta, *Printzesa ezkongai*a haurrentzako bideoa emango da Kultur Etxean.

**JAIOTAKOAK**

**Manex Larrañaga Eskarza**  
Maiatzak 3

**HILDAKOAK**

**Niko Martínez Amurrio**  
Maiatzak 5, 51 urte  
**Imanol García Alberdi**  
Maiatzak 8, 27 urte  
**Luis Lasheras Ros**  
Maiatzak 8, 63 urte  
**Jose Mujika Telleria**  
Maiatzak 9, 66 urte

# Pleno Aretoa gainezka zegoela inauguratu zen Udaletxea

*Udal langileen protestak konbenioaren negoziaketa eskatuz*

**Eli Galdos** Gipuzkoako Diputatu Nagusiak Udaletxearen berrizte lanak inauguratu zituen larunbat goizean Udaletxe-ko Pleno Aretoan. Eli Galdos, Anton Arbulu Hirigintza Diputatu, Victoriano Gallastegi Bergarako alkatea, udal zinegotziak (HBkoak ezik) eta hainbat herritar bildu ziren. Aretoa beteta zegoen.

Victoriano Gallastegik Udaletxearen historiaren ibilbidea egin zuen bere diskurtsoan, egindako berrizte lanen garrantzia azpimarratuz. Anton Arbuluk eta Eli Galdosek ere Udaletxearen izaera historikoa eta egindako berrizte lanak goraipatu zituzten eta, azkenik, Eli Galdosek inaugurazioa egin zuen "*bergararrei Udaletxe dotore hau iza-teagatik zorionak eman*".

Jarraian Bergarako Orkestra Sinfonikoak, Alfredo González Chirlaqueren batutapean, Haendelen *Water music* eta Bergarako ereserkia jo zituen.

Inaugurazioaren aurretik, udal langile talde bat Plazan bildu zen konbenioaren negoziaketaren hasiera aldarrikatuz.



Gipuzkoako Diputatu Nagusiak inauguratu zuen ofizialki Udaletxea.

Eli Galdos eta Anton Arbulu igarritakoa baino zertxobait lehenago heldu ziren Bergarara eta alkateak egin ziren harreran langileen protestak eta txistuak entzun behar izan zituzten. Edu Murua-mendiarazek eta Xamat dantzataldeak ohorezko aureskua eta Ikurrin dantza minutu batzutan aurreratu zituzten.

**Pintadak Udaletxean**

Larunbat goizean alkatearen kontrako eta anarkia eta okupazioaren aldeko hainbat pintada azaldu ziren Udaletxe-ko fatxadan. Udal brigadak pintadak garbitu zituen

inaugurazio ekitaldia hasi baino lehen.

**Liburuaren aurkezpena**

Ostiralean, berri, Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko kide kolektibo izendatu zuten Bergarako Udala. Azkoitia eta Bergara dira Elkarteko lehen bi kide kolektiboak eta alkatearen hitzetan, "*elkarrekin kolaboratzeko oso konprometuz garrantzitsua da eta obore bat da gure herriarentzat*". Udaletxean eginiko ekitaldian Eli Bergararen "Inventario del Fondo del Real Seminario" liburua ere aurkeztu zen.

Zure  
konfidantzako  
denda



Tfnoak: 79 13 55 - 79 27 27

ARRASATE

### ◆ Udalaren oharra

Etxeko zaborrak pilatzeko Udalak ezarritako ordutegia, egunak eta tokiak ez direla errespetatzen ikusi denez, lehenengo kontrol fasea amaitu ondoren, ordutegia, egunak edo tokiak errespetatzen ez zituzten zabor-poltsak arakatu ondoren, ohartarazpena bidali izan zaie zabor poltsen jabe bezala identifikatutako pertsoneri. Orain bigarren fase bati ekingo dio Udalak eta zigor espedienteak irekiko dira 500 pezetatik 5.000 pezetarainoko isunak jarriz.

### ◆ Begirale deialdia

Kikaundik uztailaren 3tik 21era hurrekin lan egiteko begiraleak behar ditu. Betebeharreko baldintzak hauek dira: Bergarakoa izatea, 18 urte edo gehiago izatea eta euskara ondo menderatzea. Begirale tituloa izatea eta haurren murrizketekin esperientziarik edukitzea ere baloratuko da. Interesatuak Kikaundin (Aranzadi Ikastolako 2. pisuan) eman dezakete izena maiatzaren 11tik 18ra bitartean, 5.30etatik 7.30etara.

### ◆ Erlajazio ikastaroa

#### Antzuolan

Antzuolako guraso talde batek antolatuta, erlajazioa, kontrol emozionala eta programazio mentalari buruzko ikastaroa izango da Antzuolan maiatzaren 20an eta 21ean, larunbatean 9etatik 13etara eta 15etatik 21etara eta igandean 9etatik 13etara. Prezioa 7.500 pezetakoa da eta Antzuolako liburutegian edota Dinanean izena ematerakoan 3.000 pta. aurreratu behar dira. Ikastaroa gazteleraz emango da.

### ◆ Kafe tertulia

#### ostiralean

Datorren ostiralean, maiatzak 19, Herri Batasunak kafe tertulia iragarri du arratsaldeko 4<sup>t</sup> erdiatarako Arrano tabernan. Bertan gazteen arazoak aztertuko dira eta jendeari parte hartzeko dei egiten zaio.



HBko zinegotziek kritikatu egin dute Gobernu Batzordeak eurekiko agertu duen jarrera.

## Herri Batasunak legealdiaren balorazioa egin du

### "Plenoetan eta Komisioetan baztertu egin gaituzte"

Herri Batasunak amaitzeaz dagoen legealdiko balorazioa egin zuen astelehenean prentsaurrean. HBko ordezkariak area guztietan lan egiteko aukerak murriztu zaizkiela salatu zuten, "herriko biztanle erdiaren ordezkariak baztertu izan dela" gaineratuz.

"Udaletxearen inaugurazioan ere ez ginen egon eta alkateak Udaletxearen birmoldaketa egun historikoa zela adierazi bazuen ere, guretzat ere historikoa da zinegotzi erdiak baztertua izan garelako. Horretaz erreflesio bat egitea eskatzen dugu" esan zuten HBko zinegotziek. Beren hitzetan, "Gobernu Batzordetik aparte, Plenoetan eta Komisioetan ere baztertu egin gaituzte. Horrekin, batetik herritarrei berba ukatu zaie eta bestetik zinegotzian bitzari baliogutxi eman zaio. Gainera datu bat azpimarratu nahi genuke: ez obizko Plenoak obizkoak baino gehiago izan dira, eta ez obizkoetan erregu eta galderetarako aukerarik ez da egoten".

HBk ez du uste Udal Gobernu Batzordeak jokabide demokratikoa izan duenik: "gure ustez demokra-

zia partizipatiboagoa izan beharko litzateke. Gobernu alderdiek jarrera inmorala agertu dute eta guk partizipazioa, elkarlana eta horrelako baloreak aldarrikatu nahi ditugu. Demokrazia partizipatibo baina inpositibo izan da".

HBko ordezkariak haserre agertu ziren askotan ez zaielako inongo kasurik egin: "komisioetan erabakitako gauzak Gobernu Batzordeak aldatu ditu askotan: bezkuntza teknikariaren gaia, UNED-en liburutegia zabaltzeko proiektua, aurrekontua... Era berean, Egin egunkariarekin izandako jokoa ere salatu nahi dugu, oraindik ere, nabiz eta askotan galdetu, ez bait daukagu egiten zaion boikotaren arrazoa".

Udaleko komisioak aztertuz, badira ezberdintasunak Herri Batasunako zinegotzien ustetan: "Hirigintzan Batzordean esaterako lan egiteko aukera izan dugu, Auzoetako Batzordean lau urtean bi aldiz bildu gara bakarrik eta bezkuntza arloan, bestetik, gure proposamen gehienak bertan behera gelditu dira".



# Aritz Irazabalbeitia ez dator bat hasieran eman zen bertsiorekin

**Igandean** atxilotuta izan zen Aritz Irazabalbeitia 16 urteko bergarra aske utzi zuten asteartean. Ertzaintzak Soraluzeke Suhar eta Aidor Aizpuruana anaiak bikiak eta Aritz Irazabalbeitia atxilotu zituen igandean, Soraluzeke Iturbe Zaharra baserrian zeribilkiten gasolina eta bolborak eztanda egin ondoren. Ondorioz, Aidor Aizpuruak zauri larriak jasan zituen eta Bilboko Cruces Eritetxean ingesaturik jarraitzen du.

Ertzaintzak gazteak kabina batean jartzeko artefakto bat gertatzen ari zirela adierazi zuen eta gazteek jolasten ari zirela adierazi dute. Asteartean Eibarko Epaitegian deklaratu zuten eta epaileak



Astean zehar manifestazioak egin dira Aritzen askatasuna eskatzeko.

desorden publikoengatik errua botatzen die. Beraz, hamabostero Epaitegian aurkeztu beharko dira. Aritzen gurasoek adierazi digutenez, "umekeria bat izan da eta kontestutik kanpo atera da guztia. Haserre gau-


de komunikabideetan eman zaion tratamendurekin. Lotsagarria izan da mutiko batzuk borrela erabiltzea dauzkaten abizenengatik. Hala ere, eskerrak eman nahi dizkiegu elkartasuna adierazi digutenei".

## ◆ Kea oraindik

Ostiralean su hartu zuen Mekolaldeko Industrias Mujika enpresak kea dario oraindik. Goma eta kautxoarekin lan egitean, suhiltzaileei oso zaila gertatu zitzaion sua kontrolatzea. Pedro Mujika lantegiko ordezkariak lantegia berriz martxan jartzeko itxaropena azaldu du.

## ◆ Bedelkar

Bedelkar Bergarako dendarien elkarteak eta Beart herriko artisten elkarteak komertzio ezberdinetan 106 arte lan jarri dituzte ikusgai maiatzaren 19ra arte. Komertzioetan banatuko diren boletoekin zozketa bat egingo da eta irabazleak erakusgai diren lanen artean nahi duena aukeratu ahal izango du.



Miguel ALTUNA

## HEZKUNTZ ESKAINTZA

### • moduloak •

Intsitutua

Bergara

#### MODULO III

Mekanikagintza  
Administrazioa  
Enpresen gestioa  
(Teknikari)

2. BTI, 2. BAG, 3. FP II, UBI

#### MODULO II

Administrazioa  
Enpresen gestioa  
(Laguntzaile)

2. REM

#### MODULO I

Mekanika  
Elektragintza

2. REM


**Aurrematrikula:** maiatzaren 4tik 18ra

**Bulego orduak:** Goizez: 9.30-13.00. Arratsaldez: 15.00-17.00

Miguel Altuna Institutua

Ibargarai, 2 BERGARA

☎ 76 24 91 / 76 38 49



Zentral elektriko etxean jabetxe bat jartzeko eskaria jaso da Udalean.

## Goiko estazioko etxea okupatu dute Gaztetxeok

*Alkatea: "Hori 'por las bravas' okupatzea da"*

**Gazte Asanbladak Goiko Estazioko Iberdueroko etxea okupatu zuen aurreko astean.**

Beren hitzetan, "gure asmoa bertan gaztete bat egitea da eta horretarako lanetan hasi gara". Gazte Asanbladako ordezkariak diotenez, "astearte obra baimena eskatu genuen Udaletxean eta gaur (asteazkenean) horren ezetza jaso dugu. Dena den etxe hau 20 urtetan egon da abandonatuta eta ez dugu uste hemen inori kalte egiten diogunik herritik nabiko urrun bait gaude. Hemen ez dugu trabarik egiten eta lan egiten uzteko eskatzen dugu bakarrik".

Gazte Asanbladak gaztetxerako proiektu berriak ditu. "Tailerrak eta horrelakoak antolatu nahi ditugu, sor daitezkeen inizatiba guztiei irtenbidea ematen saiatuko gara". Egunotan 30 bat lagun ari dira lanean Goiko

Estazioan eta hemendik lasterrera beren materiala eramateko asmoa daukate. "Udalak gordeta dauka gure material guztia eta gustatuko litzaike hemendik pare bat hilabetera hona ekarri ahal izatea". Bien bitartean asteazkenean, 7etan, asanbladak egiten jarraituko dute, Goiko Estazioan eguraldia ona bada eta UNEDen, eguraldiak laguntzean ez badu. Bestalde, dirua lortu ahal izateko kamisetak, fanzineak eta pegatinak salduko dituzte.

Alkateak, berriz, zera adierazi digu. "Ez da inor etorri lokalik eskatzera eta hori 'por las bravas' okupatzea da. Aurrez permisoa eskatu behar da eta gainera kontutuan izan behar da Udaleko lokal horrek beste erabilera bat izan dezakeela. Jabetxe bat jartzeko kontsulta jaso dugu eta hori aurrera eramanez daitekeela erantzun dugu".

## udal hauteskundeak

### ■ ZUTIKek zerrendak Antzuolan

ZUTIKek Euskal Autonomi Elkartearen zerrendak aurkeztuko dituen herri bakarra Antzuola da. Aurreko legealdian Bergaran eta Gipuzkoako beste herri batzutan hautagaiak aurkeztu bazituen ere, oraingoan Antzuolan bakarrik. Alex Lakunza izango da zerrendaburua. Bigarren eta hirugarren postuetan, berriz, Jose Antonio Igarza eta Juan Jose Azkarate aurkitzen dira. EAJK Antzuolan honako hauek aurkeztu ditu hiru lehen postuetan: Mikel Larrea, Basilio Ormazabal eta Felix Agirre. HBk, ostera, Juan Antonio Iturbe, Mireia Unamuno eta Xabier Etxezarreta. EAK, Isidro Zabaleta, Julian Azkargorta eta Dina Mujika eta PSE-EEK, Francisco Morcillo, Juan Benitez eta Manuel Castaño.

### ■ EAJK zerrenda aurkeztu du

EAJK asteazkenean aurkeztu zituen hautagaien zerrendak. Lehen indarra izan, zazpi zinegotzi lortu eta alkatearen aukiarik eustea da Victoriano Gallastegi zerrendaburuaren asmoa. PPri buruz, zinegotzirik ez duela lortuko eta zerrenda Madrilera "parakaidistez" osaturik dagoela esan zuen. Legealdiaren balorazio oso positiboa egin zuen eta programa ia oso-osorik bete dutela gehitu zuen.



Joseba Egibar Gipuzku Buru Batzarreko burua eta EAJren hautagaiak.

### ■ Hasi da hauteskunde kanpaina

Atzo hasi zen hauteskunde kanpaina. Maiatzaren 26ra bitartean partidu politikoak jo eta ke arituko dira boto eske. BERRIGARAK jarraipen berezia egingo dio kanpainari eta datorren astean hautagai guztiei egindako elkarrizketak argitaratuko ditu.

### ■ HBk ekitaldi ugari datorren astean

HBk hainbat ekitaldi antolatu ditu hauteskunde kanpainarako. Larunbat honetan mahaiak jarriko ditu kalean informazioa banatzeko eta arratsaldeko 7.30etan San Martin plazan mitina emango dute Maite Aristegi, Jose Luis Elkoro eta Mikel Zubimendik. Martitzenean, 16, Eibar eta Arrasate bitarteko bizikleta marxa egingo da. Bergaran goizeko 11etan elkartuko dira eta Arrasaten mitina izango da. Maite Aristegi alkategaiak, berriz, hainbat hitzaldi emango ditu: Asteazkenean, UNEDen "Emakumeen premiei erantzuna" gaiari buruz jardungo du. Ostegunean, 18, Osintxuko ludotekan izango da arratsaldeko 8etan eta ostiralean, Angiozarko saloian ordu berean.

# Fernando Albeniz intsumisoa aske Martutenen egon ostean

*Epaileak behin behineko askatasuna eman dio*

Fernando Albeniz bergarar intsumisoa aske utzi zuten asteazkenean Donostiako Entzutegi Probinzialeko epailearen aurrean deklaratu ondoren. Albeniz asteartean atxilotu zuten pasa den martxoaren 14an deituta zegoen epaiketara ez aurkezteagatik. Ordutik bera detentzeko ordena zuen Ertzaintzak eta asteartean Martutenera eraman zuten goizeko 8.30etan lanean ari zela atxilotu ondoren. Aurretik, Ertzaintza bere etxera joan zen gazte intsumisoagatik galdezka.

Gaua Martutenen igaro ondoren, bere jarrera azaltzen duen idatzi bat entregatu zion epaileari. Bertan soldadutza eta ejerzitoen kontra duen jarreraren arrazoiak azaltzen zizkion. Fiskalak eutsi egin zion Albenizentzat eskatzen duen 18 hilabeteko kartzela zigo-



Albenizen aldeko eta soldadutzaren kontrako hainbat ekintza egin dira astean zehar.

rrari. Momentuz behin behineko askatasuna dauka. Fernando Albenizek 27 urte ditu eta 1991 urtetik soldadutzarekiko intsumisoa da.

## ◆ Hitzaldia

Asteazkenean, maiatzak 7, Eneko Landaburu mediku hijienistaren hitzaldia izango da arratsaldeko 3retan Kultur Etxean. Eneko Landaburu osasunerako dietetan aditua da.

## ◆ Bideo ikastaroak

Islada Kultur Etxeko bideo tailerrak oinarrizko kontzeptuei buruzko bideo ikastaroak iragarri ditu. Lehehengoa maiatzaren 22tik ekainaren 30era bitartean, astean hiru egunez (5etatik 8etara). Izen-ematea (4.000 pta.) ostegunera arte zabalik izango da. Bigarrena, uztailaren 3tik irailaren 28ra arte, goizetan 10.30etatik 12.30etara. Izen-ematea ekainaren 29ra arte.

## ◆ Jubilatua

Diputazioak Ruta de los Conquistadoresera joateko 5 eguneko bidaia antolatu du jubilatuentzat. Argibide eta izen-emateak 900-43 43 43 doaneko telefono zenbakian.



Argi ikusten ez baduzu, zatoz MULTIOPTICASera. Zure eguzkitako betaurrekoak preziorik distiratsuenean graduatuko dizkizugu. Montura eta graduaturiko kristalak **9.800 pezetan**. Argi ikus dezazun. Eta beti MULTIOPTICASen garantiarekin, zure zerbitzura 450 baino optika gehiago dituen 1. mailako Zerbitzu Optikoa.

**9.800 PEZETAN**

**MULTIOPTICAS J. LARRAÑAGA**

ZERBITZU OPTIKOETAN **1 Zba**

Ibargaray, 16 - BERGARA  
J. Carlos Guerra, 1 - ARRASATE  
J. M. Barandiaran Enparantza, s/n - ORDIZIA

**Egon zaitez adi...  
KAMISETA BAT OPARITUKO DIZUGU!!**

# E.T.E.O. ENPRESA ESKOLA


**Bailara honetan ezaguna den ETEOko zuzendari berria dem Jose Luis Abaunzekin elkarrizketatxo bat egiteko aukera dugu.**

**- Jose Luis esaiguzu zer den ETEO**

- ETEO, Hezibide Elkarte talde Hezitzaile barnean kokatuta dagoen gizarte inizatiba duen zentroa da. Orain dela 35 urte sortu zen eta Administrari, Informatika eta Marketing ematen dituen eskola bat da. Bertan ikasketa unibertsitarioak ditugu eta baita ikasketa ertainak ere.

**- Ikasketa ertainetan zer ematen duzue?**

- Hemen hiru ikasketa mota ditugu: Alde batetik "Administrazio eta Gestiozko Goi batxilergoa". Hori



**Jose Luis Abaunz, E.T.E.O.ko zuzendaria**

egitera REM letik etortzen dira, eta batez ere Enpresa, Ekonomia edo Zuzenbide ikasketak egin nahi dituztenak etortzen dira maila honetara. Bestetik, "Gestio programatzailea III" moduloa. Urte beteko iraupena du eta enpresetan praktikak egiteko helburua du. Eta azkenik, "Lanbide Heziketa II. maila". Ikasketa hauek egitera REMletik, REM Iltik, COUtik edo BUPetik

etortzen dira. Esan behar dugu ikasketa hauetan maila ona ateratzen ari garela. Eskolan bertan ditugun unibertsitari ikasketetan, ateratzen dituzten emaitzak, batzaz beste media baino hobekak dira.

**- Eta unibertsitari ikasketetan zer?**

- Hemen enpresariak ditugu. Goi ikasketak dira, eta hiru espezialitate ematen

ditugu: Marketing, Finantzak eta Informatika. Esan dezagun lizentziatura ateratzera gero Bilbora joaten direla eta batzuk Manchester, Birmingham eta Stadffordeko unibertsitateetara masterra egitera ere.

**- Seguru asko aurreinskripzioak hasita egongo dira ezta?**

- Beno, ertainetan maiatzaren 4tik 18ra da eta Enpresarietan, berriz, maiatzaren 22tik ekainaren 23ra izango da.

**- Ikastetxea haunditzen ari zaretela ikusi dugu...**

- Bai, kalitatezko ikasketak emateko baliabideak derrigorrezkoak dira. Horregatik eta masifikatu gabeko klaseak izateko ikastetxea haunditzen hasi ginen, 40 ikasle inguruko talde txikiak osatzeko.

# Herri bazkaria jaietan

## Jardunek eta Olinpiada Batzordeak antolatu nahi dute

**Jarduneko Gazte Taldeak eta Herri Olinpiada Batzordeak bazkari herrikoia iragarri dute Pazkuetako martitzenerako.**

Antolatzaileek orain urte batzuk herri bazkarian izaten zen giroa berreskuratu nahi dute eta horretarako herriko koadrila guztiei parte hartzeko deia luzatu nahi diete. Beren hitzetan, *"ekainaren 6an ospatuko den koadrilen egunerako jendea animatu nahi dugu. Koadrilen eguna azken urtetan sinbolikoa izan da, ez da ezer berezirik egon eta nolabait bazkariarekin bultzadatxo bat eman nahi diogu, ea giroa zertxobait pizten den".*

### Bertan egindako paella

Prestatu den programaren arabera, eguerdiko orduba t'erdietan poteo herrikoia izango da eta ondoren, 14.30etan, Iosu eta Iokin eta Xafre eta Zaharra trikitilariak alaitutako bazkaria Plazan. Bazkalostean Plazan bertan eta giroa alaitzeko asmoz jokoak izango dira. *"Ez dakigu zebatz mebatz zer nolako jokoak izango diren baina gure helburua joaten den jendeak primeran pasatzea izango da".* Bazkarirako txartelak 1.000 pezetatan jarri dira salgai Arrano eta Pol-Pol tabernetan eta antolatzaileek lehen bait lehen




Pazkuetan martitzenean herriko koadrila guztiak herri bazkarian biltzea da asmoa.

erosteak gomendatzen dute (ez da adin mugarik izango). Menua honako hau izango da: paella (bertan prestaturikoa), oilaskoa entsaladarekin,

"brazo gitano" helatuarekin eta, bukatzeko, kafea eta kopia. Era berean, antolatzaileak herriko tabernen kolaborazioaren zain dira.

Orain 5 bat urte egin

zen azken aldiz Pazkuetan herri bazkaria eta Jardun Elkartek orain 2 urte ohitura berreskuratu nahi izan zuen Pertxan herri bazkaria antolatuz. Antolatzaileen hitzetan, *"zoritxarrez herri bazkariaren ohitura galtzen doa eta pena bat da guretzat. Guk adin ezberdineko jendea biltzea nahi genuke, abalik eta jende gehien, jaigiroan, jaietako azken eguna primeran igarotzeko. Eta lehen etortzen zen jendeari ere parte hartzeko deia luzatu nahi genioke, garai zabarrak oroitzeko aukera izango dute eta".*



Jaigiroa nagusi izaten da jaietan. Pazkuetako martitzenean koadrilen eguna izaten da eta herri bazkariatz gain, koadrilen arteko jolasak eta kukainak ere antolatu nahi dira.

## Osasuna

## Menopausia

**- Zer da menopausia?**

- Emakumearen adin oso berezia da. Esan behar da mende hasieran emakumea, batz bestea, 50 urtera arte bizitzen zela eta gaur egun media hori 78 urte ingurura arte igo dela txerto eta antibiotikoei esker. Honekin batera lehen ez zeuden arazo eta gaisotasunak azaldu dira. 50 urtetik aurrera emakumeak sortzen dituen hormonak gutxitzen dira eta menopausiaren sintomak agertzen dira.


**- Zeintzuk dira sintoma horiek?**

- Berehalako sintomak hauek dira: sofokoa, palpazioak, desio sexualaren gutxitzea, hezurren deskalzifikazioa (osteoporosia), azala sikatzea eta ximurra agertzea eta pisua gehitzea. Gainera emakumeak irabazten dituen kilo horiek modu ezberdinean banatzen dira, batez ere mokorrean eta tripan konzentratuz. Era berean, tentsio arterialak gora egiten du eta bihotzekoen arriskua handitzen da. Horren lekuko datu bat: 50 urterar-

te gizonezkoen artean 5 bihotzeko ematen badira, emakumeetan bakarra ematen da eta 60 urtetik aurrera kopuru hori berdin egiten da. Emakumeen hormonak arteria eta bihotzaren babesleak dira eta hormonak ez izatearen ondorioz arteria babes barik gelditzen dira, bihotzekoen arriskua gehituz.

**- Ze tratamendu jarraitu behar da?**

- Emakumeak gineko-



**ALFREDO OTALORA**  
(Ginekologoa)

logoarengana jo behar du errebisio sendo bat egiteko: mamografiak, minbiziaren diagnostiko azkarra egiteko analisiak etabar. Tratamenduari dagokionez 4 gomendio emango nituzke: batetik aktibitate fisikoa egitea, batez ere oso gogorak ez diren ariketak (pasia-

tzea, igeriketa, gimnasia). Bigarrenik, errejimena egitea, barazkiak, fruituak, grasarik gabeko haragia eta yogur eta esne gaingabetuak hartuz. Bestalde, buruko aktibitate egitea: telebista gutxiago ikusi eta irratia entzun edota irakurketa eginenez. Horretarako oso ariketa aproposa abestiak edota olerkiak memorizatzea izan daiteke. Eta azkenik, tratamendu hormonalak. Bi eratako hormonetan oinarritzen da, estrogenoak eta progesterona eta ahotik zein parteen bidez hartu daitezke. Tratamendu luzea izaten da, 10 bat urtekoa.

**- Zeintzuk dira efektuak?**

- Sintomak desagertzen dira eta kaltzioaren galera ebitatzen da, desgastea prebenituz. Dena den, menopausia ezberdinak daude, emakume desberdinak dauden moduan. Azken batean oso adin kritikoa izaten da eta zenbaitzuk *kabi butsaren* sindromea sufritzen dute, seme-alabek etxetik alde egiten dutelako. Depresioak agertzen dira, loaren alterazioak... Fisiko zein mentalki, bizitza aktibo bat eramatea gomendatzen dut eta emakumeak, eguno gizaratean sufritzen dituen injustizien aurrean, jarrera iraultzaile etengabea azaltzea.

**"Menopausia emakumearen adin kritikoa da. Fisiko zein mentalki, bizitza aktiboa egitea komeni da"**



Menopausiari aurre egiteko pasiatzea oso ondo dator. ARTXIBOA.



**AKORT**

- Fotokopiak koloretan
- Publizitadedun kamisetak
- Oihal inprimaketak

San Lorenzo, 7  
behea.  
☎ 76 50 39

**MUJIKA**


**Jantzidenda**

Barrenkale, 1 Tfnoa: 76 29 91



**ALTZARIK**

Dr Fleming, 5 ☎ 76 16 53



Bolondresak ez dute ezer kobratzen eta trukean ez dute ezer espero.

# Besteengandik hutsaren truke

**Besteen alde borondatez lan egin eta laguntzen duen jende ugari dago. Hauen artean daude, esaterako, Odol Emaleak, Txolarte, Caritas, Gurutze Gorria, DYA eta Mizpirualde egoitzan zaharrei lagun egitera joaten direnak.**

**G**ero eta gizarte materialistago eta interesatuago honetan dena zerbaiten truk egiten da. Hala ere, badira erlijio, ideologia eta

zaletasunak kontutan hartzeke, laguntzeagatik doan dabilten bolondresak. Talde guztiak, herrian ikusten zen behar bati aurre egiteko sortuak dira.

## Helburua laguntzea

Zeregin hauetan aritzen diren guztiak boron-

datez dabilta, inork ez du kobratzen eta trukean ez dute ezer espero. DYAKo Lakunzak dioenez, "gu ez gabiltza ezereen truke, ezta jendearen esker ona jasotzeagatik ere, laguntzea da gure helburua".

Askotan jendeak bolondres hauen lana ez du ulertzen, "ezer ez dugula kobratzen jakiten dutenean, zoratuta gaudela esaten digute" dio, Gurutze Gorriko Jonek. "Gaur ez da duela urte batzuk bezala, laguntzearen kontzientzia, bolondres izan nabia galdu egin da. Are gehiago, bolondresen esanetan, eta bauxe da euren lanaren alde txarrena, sarri jendeak ez jakintasuna tarteko, egindakoa kritikatzeko joera du".

## Bolondres berriak

Elkarte hauetan dabiltzanak, oro har, urte mordoa daramate eta zenbait kasutan ezin dute laga, ondorengorik ez dutelako. DYA, GG eta Txolarten dabiltzanek, gehienak gazteak diren arren, jende berria aurkitzea zaila dela diote; arazoa, ordea, larriagoa da Karitasen eta Odol Emaleetan, jende bera dabilelako bueltara. Gazteei lanerako deia egiten diete: "gazteak inor baino solidarioagoak dira baina konprometzua hartzea kostatu egiten zaie. Egiten den lana

**LAZKANO**  
Oinetakoak  
Barrenkale, 15  
☎ 76 25 03

**FERNANDEZ**  
  
Oihal puskak  
Oihalak  
San Antonio, 3 ☎ 76 22 93  
Ibargarai, 2 ☎ 76 53 22

  
Zatoia  
Boutique  
Barrenkale, 4 ☎ 76 18 14

*berriaren alde da eta norbaitek egin behar du".*

Karitaseko Onorio Sampietrorentzat arazoa konpromezuan datza: *"zenbait lan beti beste batzuek egin behar dutelako ustea da nagusi eta ez da hala, denok egin behar dugu".*

**Bolondres izateko: borondatea**

Txolarten, Gurutze Gorrian eta DYAn sartzeko ikastaro bat egin behar da eta ikasitakoa ez ahazteko birziklaia ikastaroak ere egiten dira; Mizpirualde egoitzan, Odol Emaleetan edo Caritasen lan egiteko ez dute ezer eskatzen. Dena den, denek ezinbestekotzat jotzen dituztenak gogoia eta borondatea dira, *"jendea-ri ezin diozu esan ani-*



Norberaren denbora librean bolondres ibiltzeko gogoia ia ezinbestekoa da.

*matzeko eta etortzeko, norberaren denbora librea da eta bakoitzak*

*nahi duen moduan pasatzen du astialdia hori argi dago. Beraz, hona gogoz etorri beharra dago" (Lakunza).*

*ez lituzketen gauzak egiten dituzte, laguntzen ari zara eta konpentsatzen du" dio Ane Molinak.*

**Merezi du**

Bolondresek egiten dutena nahi dutelako denez, ez dute sakrifiziotzat hartzen. *"Txolarten ondo pasatzen dugu, gainera gutxituek bestela egingo*

*Elkarte hauetan ibiltzeak lagun handiak egitea ere ekarri die, Gurutze Gorriko Jonek dioenez "bi koadrila ditugu: betikoa eta hemengoa, beraz, ez da lotura, ezta gutxiago ere, hori baino gehiago da..."*

**"Gure lana ez dugu sakrifiziotzat hartzen. Ezkutuko lana izan arren, fruituak ematen ditu"**



Bolondresak kexu dira jende berri gutxi sartzan delako taldeetan.

**iletxo**

ileapaindegi mistoa

BEGOÑA ARZELUS

Fleming Dokorea, 7 BERGARA

☎ 76 53 15

**BEHEKO TABERNA**

Menestra eta konejoo dira gure berezitasunak

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

**IKUSI**

ALKANDORAK, JERTSEAK, BAKEROAK ETA OSAGARRIAK

Irizar, 2 ☎ 76 53 09



**TXOLARTE**

Deba Garaiko gutxitu psikikoen aisialdiko elkar-teaz, 6 begirale arduratzen dira. Larunbatero biltzen dira (bideoak eta zuzeneko kirol emanaldiak ikusi...), asteburuetako irteerak egiten dituzte (eskiatzera...), udalekuetara joaten dira... Bolondresak astero bilera bat egiten dute, eta larunbatetan txandaka aritzen direnez bakoitza hilean behin edo birritan joaten da Txolartera.

**CARITAS**

Caritasen 20 lagun dabilta. Laguntza sozialak eta ekonomikoak ematen dituzte: Gabonetan gaixo eta zaharrak bisitatzen dituzte; familia bati arazo ekonomikoak direla-eta udalaren laguntza eskuratzeko zain dagoen bitartean lagundu egiten diote, erro-

# Nola egiten dute lan?

pak bildu eta banatu... Jen-deak eta bazkideek emandako diruari esker egiten dituzte lanok.

**MIZPIRUALDE**

Egoitzan langileez gain, badira lagun egitera joaten direnak. Asteroko ekin-tzetan (hitzaldiak, eskurtzioak...) laguntzen dute. Alazne Irazabal gizarte laguntzaileak, lagun egiteko prest dagoen jendearen zerrenda bat du eta hor azaltzen direnei deitzen die. Zerrenda batez ere jubilatuek osatzen dute, "oraingo jubilatuek gazteak dira eta laguntzeko, edozertarako prest daude". Hauetaz gain, Pastoral Sanitariakoak, eta Elgeta eta Antzuolatik hilean behin

joaten direnak ere badaude.

**ODOL EMALEAK**

Odol Emaleen Elkartean 9 lagun dabilta. Hamabostean behin izaten diren odol ateraldietan jarduten dute, emaleei ateraldien berri ematen, fitxak egiten, e.a. Fernando Idigorasen ustez, errazagoa da eskabideak inoren izenean egitea, norberarenean baino eta zeregin horretan gustora aritzen direnez ez da "sakrifizioa". Horrelako lanak izkutukoak izan arren, fruituak ematen dituzte.

**DYA**

Antzuolako DYAn 22 lagun ari dira. Denek lan egi-

ten dutenez, astean ez dute egun guztiko zerbitzua eskeintzerik, baina bai arratsaldeetan eta asteburuetan. Bakoitza hilean birritan edo egoten da. Lakunzak esan digunez, norberak hartzen duen konpromezua-aren arabera izaten da txandena, batzuk beste batzuk baino gehiago egoten dira. Ez dute subentziorik, eurek lortzen dute dirua.

**GURUTZE GORRIA**

Gurutze Gorrian soldaduzka eta ordezkoko zerbitzu soziala egiten ari direnez gain (hauetako asko gero bolondres geratzen dira), 160 bolondres dabilta. Jon, bolondres batek azaldu digunez, soldaduzka edo ordezkoko soziala egiten ari direnak "behartuta" egon arren, bolondrestzat hartzen dituzte. Larrialdietako zerbitzuez gain, teleasistentzia ere badute.

# GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologiaren unitatea
- Menopausia
- Haurdunaldiaren kontrola
- Zitologiak
- Etab.

*Profesionalen osatutako taldea emakumearen zerbitzura*

**Doktoreak:**  
**CRISTOBAL  
 ESTOMBA  
 GOMEZ  
 MURGIENDO  
 OTALORA  
 RUIZ**



**Zerkaosteta, 17 etxabea ARRASATE. Tfnoa: 79 20 18**

## Gaia landuz.....

# Zergatik ospatzen da Maiatzaren Lehena



1886.eko Maiatzaren Lehenean, Chicagon, 8 orduko laneguna erreibindikatuz, hainbat langile buruzagik gose grebari ekion zion. Istiluak gertatu zirenez, atxilotu, epaitu eta hiltzeko zigorra hartu zuten.


Horietako lau hil egin zituzten eta bigarrenak bere buruaz beste egin zuen hil behar zuten eguna iritsi baino lehen. Hauen omenez, II. Internazionalak, maiatzaren le-

hena, langileen erreibindikazio eguna izendatu zuen.

Geroztik, mundu guztiko sindikatoek manifestazioak egiten dituzte urtero egun horretan eta langileen eskubideak aldarrikatzen dira. Estatu horretan eta askotan jai eguna da.

**GORKA LOBATO, IRENE DE DIOS, JAVI SALAS, RAUL RUIZ**

## Zer da zuretzat.....ARRAZAKERIA?



**Asier Sancho**  
13 urte

*"Niretzat arrazakeria da pertsona bati kanpoko jendea ez zaiola gustatzen"*



**Monica Etxabari**  
12 urte

*"Pertsona batek beste pertsona bat bere azal koloreagatik diskriminatzea"*



**Edurne Alvarez**  
13 urte

*"Ba, arrazakeria da pertsona batek kanpoko jendeari gorroto diola"*




**Aitor Fernández**  
12 urte

*"Niretzat gauza txar bat da. Arraza batek beste bat gorrototzea"*

## .....9 galdera motz

**Gonzalo García 38 urteko arrasatearrak zazpi urte daramatza San Martin ikastetxean soinketa erakusten**



**Gonzalo García soinketa irakaslea**

- 1 Nola deitzen zara?**  
Gonzalo García.
- 2 Zenbat urte San Martin ikastetxean?**  
Orain dela zazpi urte ekin nion soinketarekin.
- 3 Soinketa klaseak ematen dituzu bakarrik?**  
Ez, 6. mailakoei izadi ematen diet.
- 4 Betidanik gustatu izan zaizu kirola?**  
Bai, bai!! Asko gustatzen zait.
- 5 Zer da zuretzat soinketa?**  
Bizitza kalitatea eta gure gorputzaren hobetzea.
- 6 Beste gai bat aukeratzekotan zein?**  
Matematika eta zientziak.
- 7 Matxista al zara?**  
Ez, ez naiz matxista.
- 8 Zein da gehien gustatzen zaizun kirola?**  
Eskubaloia eta atletismoa
- 9 Izan zaren eskoletatik, zein da hoberena?**  
Aurten, San Martin Agirre.

## Jolasean.....

### Hizki zopa

**Aurki itzazu Bergarako 7 monumentu**

- OLASO DORREA
- ARRESE ETXEA
- SANTA MARINA
- SAN PEDRO
- SEMINARIOA
- ERROTALDE
- LAUREAGA

A	H	O	N	M	A	H	I	B	O	D	A	Z	P	E	S	O
M	R	A	N	O	L	A	S	O	D	O	R	R	E	A	Z	A
P	O	R	M	A	N	O	N	E	O	H	I	Z	O	A	U	E
I	N	H	E	D	O	Z	U	M	O	B	E	O	P	S	Z	O
H	Z	O	A	S	A	N	T	A	M	N	R	I	M	A	Z	M
O	N	A	P	E	E	O	E	O	M	A	R	N	N	N	A	M
Z	O	M	A	M	N	E	O	Z	H	M	O	H	P	P	D	Z
U	M	N	K	I	D	O	T	P	A	O	T	Z	H	E	K	O
M	N	O	E	N	M	O	Z	X	X	X	A	K	D	D	O	Z
S	O	M	O	A	H	E	O	M	E	P	O	P	O	R	P	A
I	O	X	O	R	M	E	Z	O	P	S	L	O	D	O	Z	A
O	T	O	N	I	A	Z	A	X	O	A	D	M	O	Z	O	A
P	Z	I	N	O	P	E	C	E	O	D	E	A	O	X	Z	X
O	A	A	L	A	U	R	E	A	G	A	O	O	D	T	U	A
E	I	Z	A	P	D	O	U	X	P	K	M	M	D	O	E	O

## Txisteak



**Iñaki Alonso**

### MAREA GORA

Badakizue zertarako jartzen duten eskailera bat itsaso ondoan Lepekoek? Ba, itsasgora igotzeko eta itsasbehera jeisteko

### OLIBONDOAK

Badakizue zertarako jartzen dituzten Lepekoek olibondoak itsaso ondoan? Ba, olibak antxoa zapozez ateratzeko.


### TXINAKERIAK

Badakizue nola deitzen den Txinako txinorik zikinena? Txin-txin-pu.

Eta txinorik haundiena? Txin-fin.


Eta txinorik txikiena? Ka-txin-na.

## Borondatezko lana egiteko prest egongo zinateke? Zeren alde?



**Santos Bermejo**  
66 urte, jubilatua

Gai sozialetan eta ahal dudan neurrian kolaboratuko nuke bai. Esfortzu fisikorik ezin dut egin baina elkarte sozial guztietan lan pixkat egiteko prest nago.




**Moises Pildain**  
43 urte, langilea

Langabezian nago eta laguntza emango nuke, bai denbora daukat eta. Gurutze Gorriari adibidez, odol emalea ere banaiz...



**Arantxa Castelo**  
34 urte, langilea

Egia esan ez daukat denbora askorik lanagatik, bi urteko semea ere badaukat eta... Bestela gutxituei laguntzea gustatuko litzaidake.



**Aitor Elorza**  
24 urte, langilea

Ez daukat denborarik. 6ak arte lan egin, gero musikako entsaiuak izaten ditugu.... Baina laguntzekotan gazteekin kolaboratuko nuke.




**Mertxe Arrieta**  
39 urte, langilea

Lanean ari naiz eta denbora libre gutxi izaten dut. Gutxituei laguntzea gustatuko litzaidake bestela.



**Rosi Moreno**  
27 urte, langabetua

Ez dut sekula planteatu eta aukerarik ere ez dut sekula izan. Bestela opzio asko daude, nik haur gutxituei lagunduko nieke.



# Gaspar

JATETXEA, TXOKOLATGIA,  
SELF-SERVICE-A

Barrenkale, 31

Tfnoa: 76 20 02

BERGARA

# Kizkur

ILEAPAINDEGIA  
SOLARIUMA

Bolu, 51 Tfnoa: 76 50 32

# LARREA

## TABERNA

Kale Barren, 17  
ANTZUOLA



# LASA

Jatetxea

OZAETA JAUREGIA Tfnoa: 76 10 55 Faxa: 76 20 29



## Kontratu mota berriak

Askotan nekeza izaten da oreka puntu bat aurkitzea enpresari eta langilegoaren artean. Historian zehar, pixkanaka-pixkanaka, bien arteko diferentziak gutxitzen joan badira ere, azken urteotako gertaerek bakoitza bere tokian jarri duela dirudi. Gauzak ez dira betirako izaten...

Langilego borrokatzaile, kontzientziatu eta batuari, beldurra izan dio patronalak historian zehar, baina gaur egun itxaropen eza erakusten du etorkizun beltza duen langileriak. Gainera, lan mota berdintsuak egiten dituzten pertsonen artean diferentzia haundiak daude lan kondizioak aztertzeke orduan.

Merkatura azkenengo heldu direnak dira egoera kaskarrenean daudenak.

Behin behineko kontratuak egiten dituzten enpresek, kontratu mota berriek ("basura" izenaz ezagutzen ditugunak, praktika kontratuak, e.a) eta Gipuzkoako enpresari elkarteak langileak kalera tzeko eskatzen dituen erreztasunek, kaosa sortarazi dute han eta hemen. Inork ezin dezake bere bizitza eraiki oinarri horien gainean.

Argi dago enpresarientzat kontratazio sistemen flesibilizazioa beharrezkoa dela eta hortarako asmatzen dituzte formula hauek, baina honek ez du esan nahi lege bihurtu behar direnik.

ADEGI-k proposatzen dituen neurriak, bukaera jakin gabeko kontratuak esate baterako, alde positiboak eduki ditzake, bai langileentzat eta baita ugazabentzat ere, beti ere kontratuen erabile-ra zuzena egiten baldin bada. Baina denok dakigunez, legeari tranpak topatzea erraza da.

**Marta MORAL**



## Bide lapurrak

Bideak iraganean zentzu erlijioso-sagaratua izan du, edo naturazgaineko zentzua. Bidea ere bazen, behartsu eta abenturazaleen ekintzentzat toki egokia. Jakina, bide lapurrez ari naiz. Hauek gehienetan taldez erutzen ziren, baina lapur bakartia ere izan ohi zen. Gaur, lapurreta herritar hauek, desagertutzat jo behar dira. Iraganeko mendeetako gizartean aski ezagunak dira herriaren gose eta miseri-egoerak. Eta miseria nekazalgoaren eguneroko bizitzan isladatzen zen. Lapurrak gizarte-bidegabekeriaren semeak ziren eta herrian ez zuten beti etsaitasunik topatzen, beronen laguntza edo gutxienez nolabaiteko begirunea zuten.

Bandolerismoaren fenomenoak toki askotan gertatu da. Erdi Aroan politikoa zen, horrela feudalismoa kinka larrian zegoela jauntxoek bere ozteak antolatu eta borrokan hasten ziren. Jauntxoek talde hauek batzuetan bandoleroen antza hartzen zuten, batez ere boterea buruzagiren bati uzten ziotenean. Geroago Euskal Herrian izan ziren ere kasu bitxiak, horietako bat -F. Videgáin-ek jasoa- don Zoilo de Oyza apaizarena, bide lapurra eta hiltzailea. 1734 urtean apaiz hiltzailearen bi lapurkide gazte eta errugabeak urkatu baina elizgizon lapur eta hiltzaileak justiziaritzi egin zion. XIX. mendetik, erromantizismoarekin batera, lapurren irudi mitolojkoa datorkigu. Aipagarria da Belateko edo Lanzeko lapurrak. Gertakari honen lekuko bertsolaria dugu, 1818an lau bide lapurren exekuzio eredugarria kontatzen diguna.

Espainiako bandolerismoak ospe handiko gizonak eman zituen; Luis Candelas Madrigo bandolerorik ospetsuenak 42 lapurreta burutu omen zituen erail gabe, halere bera 1837. urtean urkatu zuten. Andaluzian El Tempranillo aipatu behar da: honek lorturiko boterea hain handia zen ezen bidaiariak bidea libre uzteko dirua ordaindu behar zioten. Bide lapur gehienek etorkizuna urkamendia izan zen. Horregatik herriak pertsonaia abenturazale, ausart eta errebetatu hauen inguruan leiendak sortu ditu.

**Aitxus IÑARRA**

**LONBIDE  
OINETAKOAK**



Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 **BERGARA**

**LARRAÑAGA  
eta ZUBIA  
Banatzaileak**

Errioxako ardoa, olioak,  
esnea, lejiak...

Martokua, 32 ☎ 76 45 94

**SURPE**

**Taberna**

Erdiko Plaza. Tfnoa: 76 64 97  
ANTZUOLA

**IBARGUREN PENTSUAK**

**Biona pentsuen biltegia  
Bioter produktoak eta haziak**

San Pedro, 3 Tfnoa: 76 23 79 **BERGARA**



30 lagun inguru ari dira fandango eta arin-arina ikasten.

## Fandango eta arin-arina

Datorren astean amaituko da joan den martxoaren 28tik, **Jardunek** antolatuta, **Edu eta Iker Muruamendiaraz** anaiek eman duten **fandango eta arin-arin** ikastaroa. 33 lagun izan dira dantza ikastaroan parte hartzen eta, zenbaitzuk behintzat, dantzan ondo baino hobeto egiten dutela erakutsi dute irakasleen pozerako. Nork esaten zuen dantzak etorkizun beltza zuela? Argazkian horren kontrako froga eta ikasitakoa borobiltzeko, Jardunek udazken aldera beste ikastaro bat antolatzeko asmoa dauka. Bitartean, ez dadila ikasitakoa ahaztu...

## Kirol gida

### Deba Garaiko Mankomunitateak eta kirol zerbitzuek

1995eko kirol gida kaleratu dute. Bertan bailarako herrietako kirol elkarte, instalazioak eta kirol ekitaldiei buruzko informazioa jaso daiteke. Gidak 60 orrialde ditu (euskaraz eta gazteleraz) eta elkarteen datuez (telefonoa, helbidea...) gain, kirol instalazioen ordutegia eta prezioak zehazten dira. Era berean, kirol dendak eta urte amaierara arte izango diren kirol ekintzen berri jasotzen da. Hurrengoak honako hauek izango dira: eskolen arteko kirolen finalak ekainaren 2an, xake txapelketa ekainaren 3an eta 4an, Denontzako III. Kirol Jaia ekainaren 17an, adin guztientzako futbol txapelketa ekainaren hasieratik uztailearen erdirarte eta Euskadiko Abiadura Txapelketa (igeriketa) ekainaren 10ean. Gidaren 5.000 ale kaleratu dira eta Kirol Zerbitzuan eskura daiteke.



Bailarako kirol instalazio eta beste hainbat kirol konturi buruzko informazioa jasotzen da.

**AR DATZA**  
*Brikolaketa*

Masterreka, 4 behea ☎ 76 18 93

- Ateak eta zokaloak
- Horma armairuak
- Sarrailak eta manilak
- Koadroen enmarkazioak
- Era guztietako moldurak
  - Apalak
  - Kajoiak

**ETXAGI**  
**JATETXEA**

AFARIAK, BATAIOAK,  
JAUNARTZEAK, EGUNEROKO  
MENUA, GOSARIAK,  
BAZKARIAK...

Masterreka, 8 ☎ 76 53 12



**Kamioi fantastikoa**

Udalak argazkian ikus dezakezuen kamioia erosi berri du. Mercedes 2024 AK todoterreno modelo honek 18 milioi pezeta balio izan du eta zailtasun haundiko lanetarako aproposa omen da. Lau erroberetan trakzioduna, 16 metroko grua bat eta 400 litroko koilara bat dauka kamioiak eta obretan, mendi garbiketetan edota jardingintza lanetan erabiliko da. Era berean,

Diputazioarekin harremanetan ari da Udala edurretarako beharrezko ekipamendua jarri ahal izateko. Bestalde, jaietarako erosi zen erremolkea ere eraman ahal izango du kamioiak erremolkea konpondu eta legeztatzen denean.

**Atzerritarrak Elementalean**

**Franklin P. Schargel** Nueva Yorkeko Hezkuntza Kontseiluko kide eta George Westinghouse Vocational Technical High Schooleko zuzendari dena **Miguel Altuna Institutuan** bisitari izan zen aurreko ostegunean. Irakasle estatubatuarra, irakaskuntzaren hobekuntzarako Foro Gipuzkoa XXI erakundearen



bitartez, hemengo Lanbide Hezkuntzako hainbat ikastetxeren funtzionamendua ezagutzera etorri da, eta ostegunean Bergaran irakaskuntzaren hobekuntzaren ardatzak landu zituen. Schargelek hezkuntzako Malcom Baldrige saria eskuratu berri du. Espero dezagun osteguneko ihardunaldia probetxugarria izatea Migel Altuna Institutoarentzat...

**Zertan dihardute ba?**



**Don Miguel Azkarate**

antzuolarrak eta Gipuzkoako beste 13 apaizek apaizgintzan urrezko eztaiak betetzeagatik Donostiako Elizbarrutiaren omenaldia jaso zuten astelehenean. Don Miguelek, 50 urte hauetan, besteak beste, Murgian (Araba), Itziarren, Los Rioseko misioan (Ecuador) eta Gipuzkoako Ospitalean egin du lan eta jubilatatu zenetik Bergarako Erresidentzian dago. Maiatzaren 1ean Urkiolan izan zen misionero ohien urteroko bileran. Astelehenean, apaizgintzako urrezko eztaiez gain, bere 77. urtebetetzea ospatu zuen. Zorion bikoitzak beraz Don Migueltzat.

Paper pintatuak - Pinturak

**A. ZANGITU**

☎ 76 19 54 BERGARA  
☎ 79 91 82 ARRASATE



**umelaga**  
JATETXEA

San Antonio, 5  
BERGARA  
☎ 76 20 21

**IGANDETAN ZABALIK!!**

# Rosario Belastegi

**Aierdi baserriko Rosario Belastegi ogi partitzen ibiltzen da Bergara eta inguruetan. Ogiuz gain, esnea ere saltzen du. Kanean edo etxe aurrean "denda ibiltariarekin" ikusten ez baduzu, plazan eskura dezakezu eurek egindako ogia.**

**- Baserrian zein lan egiten duzu?**

- Ogia egiten dugu eta ardiak eta behiak ere baditugu, horretan jarduten dut.

**- Zenbat ardi?**

- 200 bat.

**- Gaztarik egiten?**

- Gutxi, ia esne guztia saldu egiten dugu.

**- Etxeko ala kaleko ogia nahiago?**

- Guk etxekoa jateko ohitura daukagu.

**- Ogi asko egiten duzue?**

- Kanean, dendetan eta plazan saltzen dugu.

**- Land Roverra da zure denda?**

- Bai, zeren plazan ni ez naiz egoten.

**- Zein herritan ibiltzen zara**



*Jeiki orduko irratia pizten du, telbista, ordea, urtean orduerdi ere ez du ikusten. Denetarik jaten duen arren, entsaladak ez zaizkio batere gustatzen. Tabernan ibilia da eta negozioa jartzekotan taberna ipiniko luke.*

**normalean?**

- Bergaran, Oñatin, Arrasaten, Aretxabaletan eta Antzuolan saltzen dugu.

**- Egunero joaten zara?**

- Oñatira astean birritan, besteetara behin.

**- Zuen ogiaren sekretua?**

- Naturalagoa da.

**- Nola egiten duzue?**

- Egurrarekin, eta bakarrik azkarria eta irina ditu. Beste osagairik ez.

**- Zaila da baseritik bizitzea?**

- Gogorra, lan asko egin behar da.

**- Noiz jeikitzen zara?**

- Goizeko hiruretan.

**- Zer gosaltzen duzu?**

- kafea, kafesnea gailatekin.

**- Eguna noiz amaitzen da?**

- 10etan, 10.30etan...

**- Siestarik egiten al duzu?**

- Ez, beharra izaten dut baina

**- Oporrik hartzen duzu?**

- Ez, iaz hiru egun hartu nuen.

**- Nekazalturismoaren aldekoa?**

- Negozioa jartzekotan taberna jarriko nuke.

**- Mendia ala hondartza?**

- Mendia, duda barik.

**- Telebistarik ikusten?**

- Urtean ordu erdi ere ez.

**- Baserria ala kalea?**

- Sekula ez dut planteatu, gustora bizi naiz baserrian.

## ARREGI

**Eraikuntza  
materialeak**

Biltegia Tellerian, Labegaraian.  
Tfnoa: 76 27 93

## iRUDI

**Erlojudenda  
Bitxitegia**

Ibargarai, 2  
☎ 76 51 65



Bizkaia Etorbidea, 1  
etxabea

*Elena*



Tfnoa: 77 14 24



**ETXEBIZITZA**

**Pisua** alokatzen da Deban udan. Plaia eta Alameda alboan. ☎ 76 58 91 (gauetz).

**Pisua** salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 56 90.

**Garaje** bat alokatzen da. ☎ 76 55 50.

**Garajea** salgai Bolun. ☎ 76 05 86.

**Garajea** alokatzen da Kruz Gallastegin. ☎ 76 49 87.

**Etxea** salgai Zubiaurren. Eguzkitsua. ☎ 76 17 04.

**Garajea** salgai Zurradero 2an. ☎ 76 12 42.

**Garajea** salgai prezio onean. ☎ 76 03 70.

**Pisu** bat alokatzen da San Pedro kalean. ☎ 76 13 23.

**Etxea** salgai Osintxun. ☎ 76 28 70.

**Pisua** alokatzen da Arrasaten. ☎ 77 14 24.

**Garajea** salgai Boni Lascurainen. ☎ 76 15 64.

**Pisua** salgai Barrenkalen. ☎ 76 31 79.

**Garajea** salgai Oxirondo enparantzan. ☎ 76 47 67.

**Garajea** salgai Burdiñaiten. 3 milioi. ☎ 76 31 79.

**DENETARIK**

**Mobylette** motorra (49 cc.) salgai. ☎ 76 59 15.

**Soinu** beltza salgai. ☎ 76 59 95.

**Yamaha** XT-E Trail motorrak salgai. ☎ 76 03 40.

**Strong** bateria salgai. 20.000 pta. ☎ 76 32 39.

**Trialeko** Cota 349 motorrak salgai. ☎ 76 18 96.

**Karabana** bat salgai. ☎ 76 46 97 (gauetz).

**Volkswagen** "kakalardoa" salgai. IAT pasatu berria. ☎ (94) 673 01 22.

**Sukalde** eta jangelako altzariak salgai. Egoera onean. ☎ 79 01 66 (Aran).

Donostian **pisu** bat osatzeko pertsona bat behar da. ☎ 76 25 61 (Maite).

**Mobylette Cady** bat salgai. ☎ 76 54 73.

Estrainatu gabeko **kotxeko** **bateria** salgai. 80 anperio. Prezioa: 9.500 pezeta. ☎ 76 35 10.

**Volkswagen Polo GTI** (SS-AJ) kotxea salgai. Egoera onean. ☎ 76 38 72 (Asier).

Txakur emea estaltzeko **doberman** **har** bat behar dut. ☎ 76 57 67.

Aluminiozko **Vitus** bizikleta salgai. Ia berria. Pedal automatikoa. ☎ 76 51 96.

**LANA**

**OHO** eta **ingeles** klaseak. ☎ 76 17 18 (Jesus).

**Haurrak** zainduko nituzke. ☎ 76 57 53 (Sonia).

**Frantsez** eta **ingeles** klaseak. ☎ 76 07 87 (Aran).

Etxez etxe **OHO**ko klaseak. Matematikak, ingeleza, euskara. ☎ 76 40 27.

**Propaganda** banatuko nuke. ☎ 76 17 84.

**Ingeles** batekin gaztelera eta ingeles klaseak aldatuko nituzke. ☎ 76 24 54.

**Matematika** eta Zientzietako klaseak. ☎ 76 06 50.

**BBB, UBI** eta **Lanbide Heziketako** klaseak. Baita etxez etxe. ☎ 76 18 00.

**Etxe**ko lanak egingo nituzke. ☎ 76 52 89. Rosario.

**Etxe**ko lanak egin edota haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 32 58 (Ana).

**Zuzendaritza** **Idazkaritza** ikasi ondoren lan egingo nuke. ☎ 76 11 32 (Marta).

**Ingeles** klaseak ematen dira. ☎ 76 31 36.

**OHO** eta zientzietako klaseak. ☎ 76 03 72 (Nerea).

23 urteko **mutil** **batek** as-tebukaeretan **lan** egingo luke. ☎ 76 64 65 (gauetz).

**Aleman** klaseak ematen ditut. ☎ 76 00 81 (Idoia).

**Haurrak** zainduko nituzke. ☎ 76 08 55 (Miren).

**Ordenadorez** lanak pasatzen ditut. ☎ 76 27 59.

**SANTOS**  
**IRRATI-TB**

**ELEKTRAGAILUAK**  
**SUKALDE ALTZARIAK**  
**ARGIZTAPENA**  
**ANTENA KOLEKTIBOAK**  
**TB, BIDEO ETA SOINU**  
**APARAILUEN**  
**KONPONKETA**

Masterreka, 2 BERGARA ☎ 76 26 10

**SIRIMIRI**  
*jatetxea*

PINTXO BEROAK,  
EGUNEKO MENUA, KARTA.

Barrenkale, 3 ☎ 76 59 19

**AGOITZ**  
*Tapizdenda*

San Lorentzo, 25 BERGARA  
Tfnoa: 76 18 23



# BONOFOTOA



Miguel Angel ELKORBEREZIBAR



## Janire Jauregi

**Janire Jauregi** jaso du aste honetan BONOFOTOko saria, joan zen astean egindako galdera berak asmatu du eta. Argazkietan agertzen ziren Zerrajerako Labegaraietako lursailak aurrerantzean zertarako erabiliko diren galdetzen genizuen eta erantzun zuzena honako hau zen: **Industrialdea jarriko da**. Beraz, aste honetako 10.000 pezetak **Janire Jauregi**ri eman dizkiogu. Zorionak!!

**Bergarako zein kaletan aurkitu ditzakegu halako aurrekalde ederrak dituzten etxe bi hauek?**

Izena: \_\_\_\_\_ Abizena: \_\_\_\_\_ Tfnoa: \_\_\_\_\_

Saria  
10.000 pzta.

Moztu paper hau eta  
ekarri astebete baino lehen

**BERRIGARA**  
Errotalde Jauregia Bergara



## komentarioa

**Labegaraietako** futbito txapelketak aurrera jarraitzen du eta, dagoeneko, Liga txapelketa final erdietan dago. Hainbat arerio atzean laga ondoren alde batetik Angiozar-Arloteak eta bestetik Madura-Kabiak neurtuko dituzte indarrak. Laurek dute irabazteko aukera baina pronostiko bat eman behar baldin badugu Madura da talde faboritua Liga irabazteko. Baina Kabiak, ziur egon, zail jarriko dizkie gauzak. Beste kanporaketari dagokionez Angiozar eta Arloteak arteko neurketa parekatua azaltzen da. Hala ere Angiozarrek Errotagain kanpoan utzi ondoren faborito papera eskura dezake. Kopa txapelketa ere final aurrekoetan dago eta bertara sei talde heldu dira. Etxenagusia-Arloteak, Nahikari Hoolligans-Angiozar eta Los Txupeta-Ufala partiduetatik hiruk jarraituko dute aurrera bakarrik. Gogoratu Kopako finala hiru talderen artekoa izango dela. Hirurek elkarren kontra jokatuko dute 25 minutuko partidutxoetan. Espero dezagun formula berri honek ikuskizuna handitzea eta irabaz dezala onenak!



Ubinsti taldea.

## Nesken txapelketako finalak larunbat goizean Institutuan

Nesken txapelketako finalak jokatu dira larunbat goizean Institutuan. Azken asteetan jokatu diren partiduetako bi talderik onenak arituko dira lehian finalean. Ubinsti eta The Blue Sisters-en arteko neurketak ez dauka faborito nagusirik. Aurretik 3. eta 4. postuak erabakitzeke partidua jokatu dute Burdinezko Damak eta The Best of The Best taldeek.



The Blue Sisters.

## ▼ emaitzak

### KOPA TXAPELKETA

Angiozar-Pagomendi ..... 5 - 1

### LIGAKO PLAY-OFFAK

Kabia-Ozaeta ..... 4 - 3

Arloteak-Ufala ..... 3 - 2

### NESKEN TXAPELKETA

Burdinezko D.-Ubinsti ..... 1 - 3

The Blue S.-The Best ..... 5 - 1

## ▼ partiduak

### LIGAKO PLAY-OFFAK

#### IGANDEA

16.00: Madura-Kabia

Antolaketa Batzordea



### KOPA TXAPELKETA

#### IGANDEA

17.00: Etxenagusia-Arloteak

Angiozar

18.00: Nahikari Hooll.-Angiozar

Etxenagusia


### NESKEN TXAPELKETA

#### LARUNBATA

10.45: Burdinezko D.-The Best

12.00: Ubinsti-The Blue Sisters

Bi partiduak Institutuan



Irizar, 2

☎ 76 14 95

**JAUJA KIROLAK**

**Aldoka  
Maldoka**

**TABERNA**

Kruz Gallastegi BERGARA

**BERGARA  
Karrozeriak  
Txapa - Pintura**

Zubieta, 46 BERGARA

☎ 76 12 31

## Agustin Toledo, hirugarren Boccia txapelketan

Agustin Toledo Gipuzkoako Boccia taldea ordezkatzuz A Coruña-ko Pontedumen jokaturako Espainiako txapelketan hirugarren postuan sailkatu zen. Toledok adierazi digunez emaitza hobea espero zuten lortzea. *"Faborito nagusiak ginen lehen postua eskuratzeko, baina semifinaletan urduri samar jarri ginen eta ezin izan genuen irabaztea lortu. Halere lortutako emaitza oso ona da"*. Toledok astean zehar hiru aldiz entrenatzen du eta bocciaz gain atletismoan ere aritzen da pisu jaurtiketa egiten duelarik. Bestalde Noainen jokaturako Espainiako txapelketetan Aritz Bikuña eslamailan zortzigarren postuan sailkatu zen. Bikuñak emaitza txarragoak espero zituen eta pozik agertu da lortutako emaitzarekin. Bi kirolariak Gipuzkoa mailako Dordoka klubean dabilta eta 15 egun barru Iruñan jokaturako diren Euskadiko atletismo txapelketetan hartuko dute parte.

### Kirol materialak sortzeko beka

Euskaraz kirol materialak sortzeko bekarako eskariak aurkezteko epea, maiatzaren 20an amaitzen da. Eskariak, Udal Kirol Zerbitzuan.



Hasi berri den denboraldian Lokatzako 6 taldeetan korrituko duten txirrindulariak.

# Lokatza 95-96: sei talde eta 60 txirrindulari

## Lokatza txirrindulari taldeak aurtengo denboraldirako dituen taldeen aurkezpena egin berri du.

Guztira 6 talde dituzte, infantiletan 13 txirrindulari, lehenengo urteko kadeteetan 4, bigarren urtekoetan 7, lehenengo urteko jubeniletan 16, bigarren goan 9 eta azkenik 12 afizionatu. Entrenatzaileei dagokienez Jose Maria Gabilondo, Miguel Angel Lazpiur, Jon Ander Garitano, Gotzon del Teso, Mikel Larrañaga eta Andres Orbeagoz izango dira.

Taldeak aurrera eramanez ahal izateko Sumofic, Caravanas Oñate eta Señorío de Ojeda enpresen laguntza izan dute. Hurrengo hilabeteetan Lokatzako txirrindulariak Euskalerriko hainbat

errepidetan izango dira eta entrenatzaileek adierazi digutenez euren helburu nagusia *"bakoitza bere mailan abal duen txukunen ibiltzea"* da.

### Lasterketak herrian

Korritzeaz gain Lokatzak herriko txirrindularientzat hainbat lasterketa antolatzen ditu.

## Ekainaren 4an, Pazkuetan, Euskadiko txapelketa jokaturako da lehen eta bigarren mailako afizionatuentzat

Horrela, ekainaren 3rako 2. urteko kadeteentzat San Antonio saria antolatuko du. Ekainaren 4an Pentekoste sariaren barruan 1. eta 2. mailako afizionatuentzat. Ekainaren 25ean, aldiz, 1. urteko kadeteentzako San Martzial saria, uztailaren 22an jubenilentzako Santa Marina saria eta irailaren 10ean 2. mailako afizionatuentzako San Martin saria.

Halaber, elkarteko arduradunek gogorarazi nahi dute maiatzean zehar urteko kuotak kobratuko dituztela eta norbaitek bazkide egin nahi baldin badu zuzendari-tzakoengana jo dezala. Azkenik enpresa edo komertzioaren batek Lokatzari laguntza eskeini nahi badio atea zabalik dituztela adierazi digute elkarteko arduradunek.

## KARTELDEGIA

► **Futbola**

Bergara-UDA

Preferente maila.

Igandea, 17.00. Agorrosin.

Bergara-Urola

Lehen Erregionala.

Larunbata, 17.15. Ipintza.

Bergara-Urola

Lehen mailako infantilak.

Larunbata, 15.45. Ipintza.

► **Futbitoa**

NESKEN TXAPELKETA

Burdinezko Damak-

The Best of The Best

3. eta 4. posturako.

Larunbata, 10.45.

Ubinsti-The Blue Sisters

Finala.

Larunbata, 12.00. Ipintza.

Biak Institutuan.

LABEGARIAETAKOIA

Madura-Kabia

Play Offak.

Igandea, 16.00. Kiroldegia.

Etxenagusia-Arloteak

Kopa.

Igandea, 17.00. Kiroldegia.

Nahikari Hooll-Angiozar

Kopa.

Igandea, 18.00. Kiroldegia.

► **Eskubaloia**

Bergara-Usurbil

Kadete neskek.

Larunbata, 16.15.

Bergara-Usurbil

Jubenil neskek.

Larunbata, 17.45.

Biak Labegarieta

kiroldegian.

► **Pelota**

Bergara-Eibar

Herri arteko txapelketa,

itzulerako partidua.

Joanekoan 2 eta 1 nagusitu

ziren bergararrak.

Ostirala, 22.00.

Udal pelotalekua.

# Aitor Zabaleta

## Jaizkibelego igoeran garaile

**Aitor Zabaletak orain arte ere postu onak lortu dituen arren, joan zen igandean Jaizkibelen, Europa mailako lasterketan, lortutako garaipena egindako lanaren sari bikaina izan da San Juango gidariarentzat.**

- Lehenengo zorionak Aitor, eta kontaguzuz nola joan zen Jaizkibelego lasterketa.

- Eskerrikasko. Beno, Arraterako suspentzio berri baten zain negoen, baina ez zen heldu eta iganderako ere ez. Hala ere larunbateko frogetan emaitza onak lortu nituen eta ikusi nuen irabazteko aukerak nituela. Igandean lehenengo mangan irabaztera irten nintzen eta kubiarta berriak jarri nizekion kotxeari. Baina errepidean pintura zegoenez autoa joan egin zitzaidan. Hor denbora galdu nuen eta asko arriskatu nuen. Laugarrena sartu beharreko kurbetan 5. sartu behar nuen eta bueno topera...

- Egozkeri ere gaur berbera gertatu zitzaien, ez?

- Bai, baina segundu bateko diferentzia atera nion eta horrek hurrengo mangarako sikologikoki asko esan nahi du. Orduan, bigarren mangarako egindako erruak zuzendu eta azkarrago igo nuen. Irten aurretik makina bat aldiz egin nuen lasterketa buruz eta esan nion nire buruari: "Gaur ezin dit hanka egin!". Helmugako

arraia pasa ondoren eta 2'29"ko denbora ikusi nuenean irabazita neukala pentsatu nuen.


- Helmugara heldu eta irabazita ikusi zuenean zer etorri zitzaizun burura?

- Oraindik ere ez nuen sinesten irabazlea nintzela. Hainbeste gauza pasa zait Jaizkibelen... Behin kotxe bati atzetik jo nion, beste batean bi zulaketa, hurrengoan delkoaren pieza (10 duro balio ditu) apurtu zitzaidan... Irabazi nuela jaki-

tean ez nuen sinesten.

- Europako txapelketako lasterketa bat irabazi ondoren ze helburu duzu?

- Espainiako txapelketa irabaztea dut helburu. Bi lasterketa korritu ditut eta biak irabazi ditut. Beste lau gelditzen zaizkit eta lau urtetan bigarren gelditu ondoren, ea behingoz irabazten dudan!. Zaila da, Europa mailako onenekin neurtu behar ditugulako indarrak. Horiek ere aritzen dira Estatuko txapelketan.



Datorren asteburuan Portugalen korrituko du Zabaletak.

**"Gaur ezin dit hanka egin!! pentsatu nuen neure artean igoera hasi aurretik"**



## Altza-praka futbol taldea

**E**nrike Letek eta Martin Beitiak erretratu hau bialdu doskue bere kronika eta guzti, eta honek hau diño: ALTZA-PRAKA Bergarako auzo bateko taldea zan, Madurakua. Erretratuko taldiak jokatu zeban partidua, 1949ko martixan 20xan izan zan, Azkoagaingo kanpofutbolian, Oñatiko BETI NASAI ekipuan kontra. Arbitro lanetan Kintiñek jardun zeban: ALTZA-PRAKAK lau eta zero irabazi zeban eta honi esker bazkeixa dohain euki zeben eta kopia Bergarara ekarri.

Egunian bertan, baiña atsalde partian, Hor-Konponek eta Arrasatek alkarren kontra jokatu zeben eta Azkoagain zelaixa inaugurau.

Ezkerretik eskumara:

**Zutik:** Markos Elkoro, Julian Zelaia, Martin Beitia, Luis Esnaola, Enrike Lete, Martin Arriaran, Antonio Maiztegi, Roke Zubizarreta.

**Makurtuta:** Joxe M. Sasieta, Moises Zelaia, Bizente Lazkano, Hilario Lazpiur, Joxe Esnaola, Jesus Arizmendi, Kruz Azkarate.

*Felipe Iñarra*

*Erretratua: Enrike Lete*

*Kolaboratzaile: Martin Beitia*


Atsedeen zentrua

**LOKARTU**

Koltxoi-denda

Orain SORALUZEN

**KOXKA**



Fraiskozuri, 3 ☎ 76 23 89

- Gozokiak
- Fruitu lehorrak
- Jaunartze eta jaietarako enkarguak

**ZUBIETA**  
elektragarintza

MOTORREN BOBINAKETA  
ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK

Kruz Gallastegi, 2 behea  
☎ 76 23 48



# ederfu

BARRENKALEA, 23

☎ 76 29 65

BERGARA

7  
POLIZA

10  
POLIZA

Trebol  
POLIZA

10s  
POLIZA

Lider  
POLIZA

Todo  
Riesgo  
POLIZA

Básica  
POLIZA

Todo  
Riesgo  
900  
POLIZA

**GOGORATU!! ORDAINKETA ERRAZTASUNAK ETA %50 ARTEKO BEHERAPENAK ISTRIPUAK EZ IZATEAGATIK**

Inoiz ez du aseguru etxe batek halako aukera zabalik eskaini. MAPFRE MUTUALIDAD-i esker, hemendik aurrera izango duzu zer aukeratu. Edozein direla ere zure beharrak eta nahiak, zure autoarentzako neurriko aseguru aurkituko duzu beti. Hala seguru izan zaitezten. Seguru eta babestuta. Zure atzean auto-asegurutan buru den etxea izango duzulako.

**MAPFRE**  
MUTUALIDAD

Simon Arrieta, 3 BERGARA  
☎ 76 28 79 / 76 18 80



MAITE  
ARISTEGI



JESUS MARI  
GARITANO




AITOR  
ARANZABAL



MIKEL  
EGUREN





ANE MIKEN  
OLABARRIA



JOSE RAMON  
ETXEBERRIA

**BERGARAK**  
BEHAR DUENA

*udal*  
**abertzale**  
*eta*  
**ezkertzalea**



XABIER  
LABAIEN



GARBIÑE  
GARCIA




JUAN DANIEL  
KORTABARRIA



JULIO  
EZENARRO



OHIANA  
BERISTAIN



JOSU  
GOENAGA



AGURNE  
BARRUSO



IÑAKI  
GABILONDO



ROBERTO  
ARANZABAL




MARGA  
LOPEZ



XABIER  
ARREGI



IÑAKI  
ARIETALEANIZ



JOSE LUIS  
ARREGI



KONTXI  
OTXOA

*bozkatu*  
**HERRI BATASUNA**

